



**Bizkaiko Foru
Aldundia**

Hirigintza Saila

**Diputación Foral
de Bizkaia**

Departamento de Urbanismo

Martxoaren 3ko 27/1998 FORU DEKRETUA, udal Mankomunitateetan aholkularitza arduratzen diren bulegoak instalatzeko Laguntzak araupetzen dituena.

ZIOEN ADIERAZPENA

Egun indarrean dagoen hirigintzako legeriaren arabera, hirigintzaren funtzio publikoak ondoko egitekoak hartzen ditu bere barne: alde batetik, plangintza, udal bakoitzaren hiri garapenaren aurreikuspen gisa, eta, bestetik, plangintza horren kudeaketa eta burutapena, kudeaketa hori garapen horren ardatz nagusia dela eta kudeaketarik eza jarduera ekonomikoek ekiteko orduan lurzorua eskaziaren zergatietako bat dela. Berez, Sail honen funtsezko zeregina udal plangintza onestea da eta, zentzu horretan, aurrekontuen egitarauen bidez urtero plangintza hori gertutzeko laguntzak eman izan dira, udal guztiek etorkizuneko bere lurraldearen garapenaren erreferentzi marko egonkorra, beti berrius badaiteke ere, izateko helburua izanik. Baina zeregin horrek ez luke fruturik emango plangintza hori baliabide egokien bidez kudeatu eta burutuko ez balitz; beraz, hurrengo urratsak kudeaketa sustatzea behar du izan. Bestalde, jarduera administratiboaren funtsezko aurreoinrietako bat eraginkortasuna da, zeinek, kasu askotan, helburu horretarako berariazko erakundeak behar dituen. Zentzu horretan, ez dago zalantzarik Udalik behartsuenak ondokoak direla: beren neurri txikiagoengatik eta beren biztanleria urriarengatik proiektuen azterketa eta informaziorako bulego tekniko ezartzeko baliabiderik ez dutenak. Udal horiek zerbitzua mankomunatzen dute, ekonomia, lastertasun eta eraginkortasun hobekak lortzekotan. Hain zuzen ere, aholkularitza teknikorako bulego hauek instalatzen laguntzea eta bultzatzea da laguntza egitarau honen helburua.

Berori dela bide, Hirigintza Saileko Diputatuak eskatuta, aurretiaz Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren,

XEDATU DUT

1. Artikulua- Xedea.

Dekretu honen xedea Bizkaiko Lurraldeko Toki Erakundeei laguntzak emateko oinarriak araupetzea da, zertarako eta proiektu eta gai honekin loturiko udalen hirigintzako agerkaien kudeaketa, azterketa eta informazioaz arduratzen diren bulegoak instalatzeko.

2. Artikulua- Laguntzak.

Dekretu honetan ezarritako laguntzak dirulaguntza ez- itzulkorren kategorian sartzen dira.

3. Artikulua- Onuradunak.

Toki Araubidearen Oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 44 artikuluan aurreikusitako Mankomunitateek, beren Estatutuen arabera, hirigintza gaietan aholkularitza eta informazio atazak dituztenek, eskura ditzakete laguntzok.



4. Artikulua- Diruz lagun daitezkeen jarduketak.

Hurrengo jarduketa hauek lagundu ahal izango dira diruz:

- a) Bulego hauetarako destinatutako lokalaren lehen instalazio lanak, baita dauden bulegoen berrikuntza eta modernizapen lanak ere.
- b) Bulego altzarien erosketa, material informatikoa barne.

5. Artikulua- Baldintzak.

Laguntza hauek eskuratu ahal izateko, Mankomunitateak ondoko aukeretako bat egiaztatu behar du:

- a) 1997 edo 1998an egin, hartu eta abonatutako lanak izatea.
- b) Ekitaldi honen barruan burutzeko konpromezu irmoa egotea, proiektua eta aurrekontua onetsita dituelarik.

6. Artikulua- Dirulaguntzaren zenbatekoa.

Dirulaguntzaren gehienezko zenbatekoa lana burutzeko proiektuaren edo altzarien erosketaren %100era hel daiteke, onuradun bakoitzeko 2.000.000ko gehienezko muga dagoela.

7. Artikulua- Aurkezteko agiriak eta epea.

1.- Foru Dekretu hau indarrean jarri ondorengo 45 eguneko epearen barruan, laguntza hauen emakidan interesatutako Mankomunitateek Hirigintza Saileko agirien sarrera erregistroan hurrengo agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- a) Laguntza eskatzeko idazkia, laguntzaren zenbatekoa adieraziz.
- b) Mankomunitatearen Estatutuen kopia.
- c) Aurretiaz egindako lan edo erosketen kasuan, harrera aktaren kopia, edo ordeztan duen agiria, eta fakturaren edo fakturen kopia.
- d) Aurten egiteko diren lan edo erosketen kasuan, lanaren edo erosketaren proiektua onetsi duen ebazpen administratiboaren ziurtapen egiaztatzailea.
- e) Edonola ere, lan edo altzarien helburua hirigintzako aholkularitza eta informazio bulego administratiboa delako ziurtapen egiaztatzailea.

2.- Eskabidearekin batera eskatutako agiriak aurkezten ez badira edo eraren batean osatu gabe aurkezten badira, interesatutako Mankomunitateari eskatuko zaio gehienezko hamar eguneko epe luzaezinean antzemandako akatsak konpontzeko, egin ezik eskabideari uko egiten diola ohartarazita.

3.- Eskabideak ulertu eta baloratzeko beharrezko deritzon informazio osagarri guztia eska dezake Hirigintza Sailak.

8. Artikulua- Eskabideen tramitazioa eta emakida araubidea.

1.- Eskabideak Hirigintza Saileko Foru Diputatuak onetsiko ditu, Hirigintza Saileko Zuzendari Nagusiak hala proposatuta eta aurretiaz Hirigintzako Lege Arloko Zerbitzuaren txostena dela.

2.- Dekretu honetan araupetutako dirulaguntzak lehia bakunaren araubidearen arabera emango dira, eskabideen aurkezpenaren hurrenkera kontuan hartuta eta dirulaguntza guztietarako 10.000.000 pezetako gehienezko kopuru gaindiezina muga dela.



**Bizkaiko Foru
Aldundia**

Hirigintza Saila

**Diputación Foral
de Bizkaia**

Departamento de Urbanismo

Martxoaren 3ko 27/1998 FORU DEKRETUA, udal Mankomunitateetan aholkularitzaz arduratzen diren bulegoak instalatzeko Laguntzak araupetzen dituena.

9. Artikulua- Dirulaguntzaren ordainketa.

1.- Dirulaguntzen emakida ebazteko Foru Aginduak dagoeneko egin diren lan eta erosketen laguntzak abonatzeko proposamena ere izango du.

2.- Egiteko dauden lan edo erosketetarako emaniko laguntzak ziurtapena, faktura edo ordezten duen agiria eta harrera akta edo ordezten duen agiria aurkeztutakoan abonatuko dira. Hirigintza Sailean abonamendu eskabideak aurkeztutako mugaduta aurtengo abenduaren 15ean izango da eta ulertuko da Mankomunitate onuradunek emandako eta bidezkotu gabeko dirulaguntzaren zenbatekoari uko egiten diotela adierazitako dataren egun horretan.

10. Artikulua- Arautegi Orokorra.

Dekretu honetan bertan ezarritakoak eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren dirulaguntza eta laguntza publikoen arautegi araupetzailerokorrek eraenduko dituzte Dekretu honek ezarritako dirulaguntzak.

XEDAPEN ERANTSIAK

Lehena.- Hirigintza Saileko Foru Diputatua Dekretu honetan ezarritakoa burutu eta betearazteko beharrezko diren xedapen guztiak emateko eskuetsita dago.

Bigarrena.- Emateko laguntzak ondorengo epigrafeei dagokien aurrekontu partidan berariaz onetsitako gastuari lotuko zaizkio: 1998ko ekitaldiari; 430201 egitarauari; 732.99 kontzeptu-azpikontzeptuari; 11.03 organikoari; 01457 hurrenkera zenbakari.

AZKEN XEDAPENA

Bakarra.- Dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu den egunaren biharamunetik jarriko da indarrean.

HIRIGINTZAKO FORU DIPUTATUA

Josu Montalbán Goicoechea

DIPUTATU NAGUSIA

Josu Bergara Etxebarria